



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2008-05-13**

VI. URTEA 1.432. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



E. EZEIZA

EIDER ELDUAIEN, MANEX IZAGIRRE ETA REBEKA CALVO
TXAPIN FESTAREN ANTOLATZAILEAK

«Tolosako gazteak elkartu eta harremana sortzea da Txapin festaren helburua»

TOLOSA Larunbat honetarako antolatu dute jaiak; poteoa, trikitilariak, Mulanbo, bazkaria, herri kirolak eta kontzertuak izango dira 2

'Berria'-ren bosgarren urteurreneko ekitaldia, bihar

TOLOSA Kultur Etxean izango da, 20:00etan; bideoa, hitzaldia eta lunch-a izango dira 3



Alurr dantza taldeko kideak, atzo, Izaskunen. I. GARCIA

Amaitu dira Izaskungo jaiak

IBARRA Atzo bukatu ziren Izaskun auzoko jaiak; Alurr-en saioa «oso arrakastatsua» izan zen 7

malen
Hernani kalea 8, Donostia

elena miro



E Elkarrizketa

EIDER ELDUAIEN, MANEX IZAGIRRE ETA REBEKA CALVO > Txapin festaren antolatzaileak

«Tolosako gazteak elkartu eta ezagutzea da gure asmoa»

Tolosa » Hiriko gazteek Txapin festa antolatu dute larunbaterako; asmoetako bat da, belaunaldi ezberdinetako gazteak harremanetan jartzea.

ESTI EZEIZA

Larunbat honetan Tolosako gazteek «kaleak hartuko dituzte». Izan ere, estreinakoz Txapin festa ospatuko dute. Ekimen hau hiriko gazteek, elkarlanean antolatu dute, eta honetarako hainbat bilera egin dituzte azken hilabeteetan. Jaialdiaren inguruan mintzatu dira arduradunetako batzuk, Rebea Calvo, Manex Izagirre eta Eider Elduaian.

Nondik sortu zan ekimen hau?

Rebea Calvo: Tolosako gazte talde bat, ohartu ginen, belaunaldi ezberdinetako gazteak ia ez ginelarik ezagutzen, eta behar hori zegoela ikusi genuen. Horretarako, bide errazena, jai bat antolatzea izango zela pentsatu genuen, eta hortik abiatu ginen.

Eider Elduaian: Herri txikietan errazagoa da, gazteek elkar ezagutzen. Baina hemen, nahiz eta denak antzeko inguruetan mugitu,

kontaratu gara, ez dagoela harremanik elkarren artean. Horregatik, gure asmoa da, elkartu, gure artean ezagutu eta harreman bat sortzea. Hori dela-eta festa hau horretarako abiapuntu bat izango litzateke.

Nondik dator 'Txapin festa' izena?

E. E.: Tolosan erabiltzen den hitz bat hartu nahi genuen. Eta honekin lotuta, kaleak gure egitearena: gure lokaletatik atera eta goazen kalea gure etxe bezala hartzea.

M. I.: Azken batean, etxeko gauza bat baita, tolosarrena.

Zaila izan al da adin eta eremu ezberdinetako gazteak elkartzea?

R. C.: Nahiko erraza izan da. Horretarako, lokalez lokal joan gara, harremanetan jartzeko bertan mugitzen diren gazteekin. Idatzi bat eman genien gure asmoa zein den azalduz, eta gero, pixkanaka, bilerak egiten joan gara, beraien



ESTI EZEIZA

proposamenak ere kontutan hartzeko.

E. E.: Uste baino erantzun hobea jaso dugu. Guk azken batean lehendabiziko proposamena edo oinarria bakarrik agertu dugu, eta gainontzekoa, beraien laguntzarekin egin da.

Manex Izagirre: Berez, zaila izaten da gazteak bere lokaletatik ateratzea, baina oraingo honetan, denente ari dira mugitzen.

Lehendabiziko jaialdi honen helburuak zeintzuk dira?

R. C.: Lehendabiziko aldia izanda, gauza nahiko xumea egiten saiatu gara. Urtetik urtera zabalduz joan nahi dugu.

E. E.: Ekitaldi zabala da, eta denentzako irekia dago. Guretzat, garrantzitsuenak da herriko jendea el-

>> TXAPIN FESTAREN EGITARAUA

Maiatzak 17, larunbata

■ **11:00etan.** Berazubiko lokaletatik abiatuta poteoa egingo dute gazte lokal eta lonjetatik pasatuz. Gazteekin batera izango dira Ainhoa eta Mikel trikitilariak. Gainera, Tolosako Dultzaineroak eta Mularbo perkusio taldekoak elkartuko zaizkie bidean.

■ **14:30ean.** Gazte bazkaria izango da Abastosen, bertako produktuekin. Akiulu gazte baseritarren elkartearan laguntza izan dute ho-

kartzea, eta erakustea, horretarako gauza handiegia ez direla behar. Egitaraua begiratu gero, ekitaldi guztien arduradunak Tolosakoak dira. Azken aldian, jaialdi

netarako. Bazkarirako sarrerak salgai daude ostiralera arte, 10 euroren truke, Raku, Orbela, Meskal eta Denak tabernetan.

■ **Ondoren.** Herri jolasak eta herri kirolak gazteen artean izango dira Plaza Berrian (euria eginez gero, Berdura plazan), Xibak lagunduta.

■ **19:00etan.** Herriko taldeen kontzertuak izango dira Abastosen. Laket, Homo Demens, Desordutan, In the Kitchen eta DJ Aizpun izango dira entzungai.

handiak egitearen ohitura ari da hartzen Tolosan, eta horrekin hautsi nahi dugu. Erakutsiz, gauzak simpleagoak egin arren ere, elkartzen garela.

337 lagunek hartu dute parte Erniopeko ibilaldian

Kirolak » Erniozaleak Kultur Elkartekoen esanetan «uste baino jende gutxiago» irten da aurtengo edizioan.

ERREDAKZIOA

Erniozaleak Kultur Elkarrekin antolatuta, Ernio inguratzen duten zortzi herriak batzen dituen ibilaldia ospatu zen herenegun. Erniopeko VI. Mendi Ibilaldi honetan,

dena 337 lagunek hartu zuten parte. Aurtengoan, berrikuntza gisa, bi ibilbide ezberdin ziren. Bata 50 kilometro ingurukoa, eta bestea, honen erdia.

Aurreko eguneko ikusita, eguraldi txarra egin behar zuela bazi-rudien ere, ez zuen euririk egin, eta gustura ibili ziren mendizaleak. Hala ere, antolatzaileen esanetan, «uste baino jende gutxiagok hartu zuen parte». Horren arrazoi gisa aipatu zituzten, bezperako eguraldia eta Zumarragan beste ibilaldi



Bidegoianetik Albizurrera jaitsi ziren mendizaleak. ESTI EZEIZA

tur eta Hernialde. Gainontzekoek berriz, txikia egin zuten. Hauek ere Alkizatik abiatu ziren, baina zuzenean, Zelatunetik Errezilera jaitsi ziren, gero, Bidegoian, Albiztur eta Hernialde ere zeharkatuz. Lehen aldiz antolatu dituzte aurren bi ibilaldi, eta erantzun ona izan du ideiak. Bietan ere jende kopuru berdituak hartu baitu parte.

Batzuk goizeko seietan abiatu ziren, eta besteak zortzietan, baina asko bidean gurutzatu ziren. Izan ere, ibilaldi txikiari dagokionean, bostordu eta erdiko iraupena izango zuela aurreikusten bazuten ere, askok eta askok sei ordutik gora behar izan zituzten ibilaldiz burutzeko.

Orain, beste bi urte itxaron beharko dituzte eskualdeko eta inguruetako mendizaleek Erniopeko ibilaldi neurtua berriro egin ahal izateko.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesa dutenek deitu dezala ondorengo telefono zenbakira: 685 22 70 58.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu 665 70 86 35.

neurtu bat izatea. Ia parte-hartzaile guztiak amaitu zuten ibilaldia, eta gustura agertu ziren ibilbidearekin. Jendeak egiten zuten aipamen nagusia lokatzarena izan zen, Bidegoianetik Albizurrerako jai-

tsiera «nahiko gaizki» baitzegoen. 180 lagunek egin zuten ibilaldi luzea. Hau da, Alkizatik abiatu eta Erniopeko beste zazpi herriak zeharkatzen zituena: Larraul, Asteasu, Aia, Errezil, Bidegoian, Albiz-

'Berria'-ren bosgarren urteurrena ospatzeko ekitaldia bihar, Tolosan

Komunikabideak

Kultur Etxean izango da, 20:00etatik aurrera; ikus-entzuzkoa, hitzaldia eta lunch-a izango dira.

ERREDAKZIOA

2003ko ekainaren 21ean kaleratu zen *Berria* egunkariaren lehen alea. Beraz, laster beteko dira bost urte, eta urteurrena behar bezala ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte egunkariko arduradunek. Eskualdez eskualde banatu dituzte ekitaldiok, eta 23 izango dira denera. Tolosaldeko eta Leitzaldekoari dagokionez, bihar izango da, Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan.

Luzatu bostekoa lelopean burutuko da biharko ekitaldia. *Berria*-ren ibilbide azaltzen duen ikus-entzuzkoa proiektatuko dute lehendabizi, eta ondoren, egunkariaren aurrera begirako erronken inguruan mintzatuko da Martxelo Otamendi *Berria*-ren zuzendaria. Amaieran mokadutxo hartzeko aukera izango dute ekitaldira bertaraten direnek. Ekitaldi honekin *Berria*ren harpidedunak, Euskarazko Komunikazio Taldeko (EKT) akziodunak, erosleak, gizarte eragileak, erakundeetako ordezkariak, egunkariaren iragarleak, euskaltzaleak... eskertu egin nahi dituzte, «egindako guztia ezinezkoa izango bailitzateke guztien laguntzarik gabe».

Eskualdez eskualde burutzen ari diren ekitaldi hauez gain, ekainaren 21erako egunkariko arduradunek jaialdi berezi bat antolatu dute Donostiako Kursaallean.

Milaka herritarren salaketa

Hamahiru urte kalean izan ondoren, 2003ko otsailen Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria*, euskara hutsean argitaratzen zen egunkari bakarra, itxi zuen. Eskualdeko bizilagunek, Euskal Herri osoan bezala, kalean salatu zuten gertaera. Herrietan hainbat elkarretaratze eta manifestazio egin zituzten, eta otsailaren 27an Donostian izan zen manifestazio jendetsuan ere askok hartu zuten parte. Ondoren, proiektu berri bati ekiteko lanean hasi ziren. Proiektu horren helburua euskara hutsezko egunkaria berriro kaleratzea izan zen: *Berria*.

Batzordeen sorrera

Egunkari berriaren lehen aleak segituan ikusi zuen argia, baina hori posible egiteko lan handia egin zen atzetik Euskal Herriko txoko guztietan. *Egunkaria*-ren aldeko herri batzordeak sortu ziren *Euskaldunon Egunkaria* itxi bezain pronto. Gure eskualdean hainbat batzorde sortu zituzten, azpi eskualdeka ba-



Goian, Hitza eta dantza jaialdia, Tolosan. Behean, Berrobin egin zuten Egunkariaren aldeko Korrika Txikia. J. S./I.E.

» DATUAK

■ **Ekitaldia.** *Luzatu bostekoa* lelopean, akziodunak, erosleak, harpidedunak, erakundeetako ordezkariak, publizitate bezeroak, euskaltzaleak... eskertzea izango da helburu nagusia.

■ **Osagaiak.** *Berria*-ren 5 urte hauek nolakoak izan diren azaltzen duen ikus-entzuzkoa; ondoren, aurrera begirako erronkak zeintzuk diren azalduko ditu Martxelo Otamendi; amaieran, mokadutxo hartzeko aukera izango dute bertaraten direnek.

■ **Noiz.** Bihar, hilak 14, 20:00etan.

■ **Non.** Tolosako Kultur Etxean.

natuak. Tolosako batzordeko ki-deaizan zen Iñaki Azaldegi, eta gogoan ditu itxieraren ondorengo oneak: «lehenengo egunetan salaketa lanak egin genituen, elkarretaratzeak, manifestazioak... Proiektu berri bati, hau da, egunkari berri bati berriro ekiteko lan taldea prest zegoen, eta salaketan aritu gineno deitu ziguten laguntza emateko. Batzordea sortzeko bilera batera deitu genuen Kultur Etxean, eta 15 lagun inguru bildu ginen, talde polita zen».

Batzordeen barruan lan taldeak sortu zituzten ardura desberdinekin. Azaldegiren kasuan, akzioak saltzea izan zen bere zeregina nagusiki: «hauek norbanakoei, erakundeei eta enpresei saltzeko pla-

na egin genuen, esaterako norbanakoen kasuan zerrenda bat egin genuen. Une horretan dirua lortu behar zen, eta egia esan, ezin dugu esan oso zaila izan zenik; izan ere, esaterako, LAB eta ELA sindikatuek asko lagundu zuten, eta kontuan izanda Tolosaldean gehien-go dutela bertako lantergiatan saltzeko lanak asko erraztu zituzten. eskualdeko udal gehienek ere babesa eman zuten. Tolosaldean kopuru batera iritsi beharra genuen, eta gainditu ere egin genuen».

Giroa zuzpertzeko ekitaldiak

Itxieraren ostean, hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Salaketa ekitaldiak lehendabizi, dirua biltzeko ekimenak ondoren, eta kultur ekitaldietako bat Hitza eta dantza izan zen. Plaza Zaharrean izan zen, eta poesia eta dantza uztartu zituen. Xabier Telleria aritu zen antolatzen, eta horrela gogoratzen duoso arrakastatsua izan zela gogoratzen du: jende ugari bildu zen, plaza betetzera; poesia laburren errezitaldiak dantza emanaldiak tartekatuta genituen, eta arabiera, gaelikoa edota kataluna bezalako hizkuntzak ere nahastu genituen».

«Herritarren borondatea»

Egunkaria-ren itxiera eta gero euskarazko egunkari berria sortzen laguntzeko borondatea erakutsi

zuela jendeak dio Iñaki Azaldegi: «Herritar askok eta askok kalean ere geratzen gintuzten akzioak erosi nahi zituztela eta informazio eske; buruak baino, bihotzak agintzen zuela une horretan esan daiteke, izan ere, hain nabarmen zen injustizia. Hala, pare bat hilabete edo nahiko zalapartatsua izan ziren, baina ondoren emaitza onak etorri ziren, eta horrekin, poztasuna. Eta itxieratik bost hilabetera egunkari berria ikustea ere oso handia izan zen».

Euskarazko normalizazioan eragitea

CIESen 2007ko datuen arabera, 67.000 irakurle ditu *Berria*-k Hego Euskal Herrian. Egunkaria tarteka irakurtzen dutenen kopurua kontuan hartzen badugu, euskaldunen %25ek irakurtzen du. «Oraindik euskarazko prentsara hurbildu ez den euskarazko irakurle multzoa erakartzea» dela *Berria*-ren helburu nagusienetakoa diote ordezkariak.

Euskararen normalizazioan eragitea xede duen komunikabideak astero astero gehigarri bereziak ere kaleratzen ditu. Komunikabideek jarraitu beharreko bide berrien garrantziaz oharturik, *Berria* ez da prentsa idatzira, edo papereko ediziora mugatu. Horren adibide garbia da www.berria.info webgunea eta baita horren edizio jarraitua ere.

Laburrak

Gizarte parte-hartzeari buruzko ikastaroa, gaur

TOLOSA ● Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza ikastaroa hasiko da gaur 19:00etan Tolosako Kultur Etxean. Ikastaroa bi orduko hiru saiotan egingo da, gaur, bihar eta etzi. Prestakuntza Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu du eta bertan parte-hartzea irekia eta dohakoia izango da. Ez da alde arretik izena eman behar, lehenengo egunean dagokion orduan bertaratzearekin nahikoa izango da.

Estropadetan izen-ematea etzi eta ostiralean

ARRAUNA ● San Joan jaietan, ekainaren 22an eta 24ean izango den estropadetan parte hartzeko maiatzaren 15ean eta 16ean gerturatu beharko da Zerkausiare azpialdera, 19:00etatik 20:00etara. Talde bakoitzak 100 euro ordaindu beharko du.

Aldaketa klimatikoa izango da etzi hizpide udaletxean

TOLOSA ● Aldaketa klimatikoari buruzko hitzaldia izango da etzi, Tolosako udaletxean, 19:30ean. Margarita Martinek emango du.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

| |
|--|
| OSASUNA. |
| Alegialdea. Osasun z.: 943 653212 |
| Anoeta-Alkiza-Herialde. |
| Medikua: 943 65 23 39 |
| Asteasu. Medikua: 943 692423 |
| Baliarrain. Medikua: 943 889003 |
| Berastegi-Elduain. |
| Medikua: 943 683361 |
| Bidegoian. Medikua: 943 681134 |
| Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411 |
| Ikaztegieta. Medikua: 943 653329 |
| Iruia. Osasun zentroa: 943 690720 |
| Leizta. Osasun z.: 948 510800 |
| Orendain. Medikua: 943 655595 |
| Orexa. Medikua: 943 682228 |
| Tolosa. |
| Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111 |
| San Esteban: 943 006800 |
| Gernikako arbola: 943 006900 |
| Amarozko dispen: 943 672637 |
| Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak) |
| DYA: 943 672536 |
| Gurutze Gorria: 943 674888 |
| Villabona. Anbula.: 943 006970 |
| Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930 |
| GARRAIOAK. |
| Renfe: 902 24 02 02 |
| Donostiako autobusa: 943 361740 |
| Tolosaldeko bus: 943 650621 |
| Leitzarain autob. : 948 221015 |
| Taxia: 943 670420 |
| Taxia (Leizta): 608 873016 |
| BESTERIK. |
| Ertzaintza: 943 538820 |
| Tolosa-Udalteingoa: 943 675858 |
| Tolargi: 943 650016 |
| Iurramendi egoitza: 943 670325 |
| Tolosa gasa: 943 675320 |

Maiatza Kulturala «herriko guztiarentzat»

Albizar » Aurtengo berrietasun artean paella jatea izango da hilaren 24an. Ostiralean ekingo diote kultur egitarauari.



Joan den urtean umeen saioa Kultur Astean. EN ERRETA

HERRIARRIBIZU

Udaberriaren sartuta, berrietasun Kultur Asteak hasi dira ere. Albizturren txanda da oraingoan, eta aurrean, udalalde berria izanik, hisia eta gogo berriekin azaldu dira Maiatza Kulturala deitu duten ekitaldi sortari. Kultur zinegozakiak adierazi bezala, «beste urtereko hainbat ekitaldi mantendu eginditu, eta beste berriren bat ere gehitu. Helburua, dena dela, herriarrak animatzea eta parte hartzea da, adin guztietakoak». Antolatze Arkaitz elkarre eta Albizturko Udala elkarrekin dira. Ostiralean hasten da ekitaldi sorta hau eta Kiki eta Koko paila-zok emanago diote hasiera 17:00etatik aurrera. Kultur Astearen Galteazundi eskarriak ditek an-

tolatu du umeentzako ekitaldi hau. Ondoren, Hitza Pilota Txapelketako partidak ikusteko aukera ere izango da. Frontonian arlo dinamikak 19:00etatik aurrera. Larunbatean, berriz, kirolarekin loturiko hitzaldi emanago dute Orieko arraukariak entzenaz. learekin batera. «Urtero kirolarekin loturako hitzaldiak alorlatu izan dira Alkianaren eta Arriaketa handia izaten dute. Arraukariak

paella-jatea, hain zuzen. «Herriko sukaldariek prestakomoko dute paella eta elkarrekin izango da». Paella prestatzeko lana ematen du, baina adin guztiekin eskaintzeko ekitaldi proposa dela ikusten dugun. Nostri, inorka da eta herriarrak gain, kanpotarrak ere gustura hartuko dituzte 5 euroen truke. Paella hain bertan prestatuko dute, plazan. Paellak gain, postres, kafa eta kopa izango dira. Ardo eta sagardopel pare bat izango dira. Berriz, Albiztur bisitatuko dituzte aipospa da, gainera ondoren ere musika dantatzeko aukeraz izango da. Txapelketak 19:00 arte egongo dira salgai Udaltxean, Arkaitz elkarre eta Herriko Etxean jatean.

Herriko mugen ibilaldia
Igandea, hilaren 25ean, plazaetik abiatuta herriko mugak ikusteko ibilaldia egingo dute 08:00etan abiatuta. «Aurretik Urkizatik Tolosara mugak ikusteko dugu Ondoren, hamaiketako, Arkaitz elkarre eta Herriko Etxean jatean.

EGITARAUUA

- **Maiatzak 16, ostirala**
• 17:00, Kiki eta Koko paila-zokentzako Kultur Etxean.
- **Maiatzak 17, larunbata**
• 19:30, Hitzaldia, Orieko arraukariak eskaitz, Kultur Etxean.
- **Maiatzak 23, ostirala**
• 19:00, Eskolako ikasleen fisuak antzokian, eskola bertan.
- **Maiatzak 24, larunbata**
• 14:00, Paella eraldaren jatea egongo da plazan.
- **Ondoren, Musika.**
- **Maiatzak 25, igandea**
• 08:00, Plazatik abiatuta, herriko mugak ikusteko ibilaldia.
- **Ondoren, Hamaiketako, Arkaitz elkarre.**
- **Oharra:** Paellarako bartelak hilaren 19ra arte daude salgai Udaltxean, Arkaitz elkarre eta Herriko Etxean jatean.

Laburrak

Idoiak Sanchez jaiun-kontalaria etzi bi herriatan
GZARTEA - Ertz, osteguna, Idoi Sanchez jaiun-kontalaria Alegian eta Orendainen izango da. Lehen, Alegiko Kultur Etxean, 17:00etan. Orendainen, berriz, liburuetan izango da entzuteko aukera 18:15ean. Gaultzandiko eskarriak antolatuta du ekitaldi hau.

IV. Kirol Asteari gaur zortzi helduko diote
ALEGA - Alegian IV. Kirol Astea antolatuta dute. Hilaren 20an hasi eta 11 eguzteko izango da. Kirolarekin eta osasunarekin lotutako hitzaldiak eta kirol-entzutekoak izango dira bertako. Inturrikoek erdiberrak amaiaroko festa izango dazahag ardoarekin. Alegiko kirol batzordeak izango da antolatzailea eta laguntzailea, berriz, Kutxa.

Zinema euskaraz berriekin

DE ABURU GUZTIEN URTEA
Jinma DVD formatuan

Maitatzaren 21a
Jinma DVD formatuan

OHARRA: Bi begiako bukatu arteko eskarria

berriak 5 urte Zatoz gurekin ospatzera!

ESKUALDEZ ESKUALDEKO EKITALDIAK

- BERRIAK 5 urte Bideoa
- Hitzaldia, Aurrera begirako erronkak
- Mokadua

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO EKITALDIA
Maiatzak 14, asteazkena, 20:00etan
Tolosako Kurtur etxean

Zurea da hitza



Herrigintzan bertso afari bakina
HAZTEGETA » Joan den ostiral gauan, ikaztegietan Herrigintza elkarrean bertso afari bat antolatuta zuten. «Bertso afarian 35 pertsona elkartu ginen. Behat eta Unai Gaztelumendi anaia ahojarraren bertsoek giro ederera jarri zuten Herrigintza elkarrean».

Seniorren lehenengo partidetak emaitzak

ERREDAKZIOA
Larunbatean V. Hitza Pilota Txapelketako seniorren lehen partidak izan ziren eta hasean izan ziren emaitzak: Beñita-K. Galarraga 22, Umeneta-Aranak 19; Narbarte-Ajuria 15, Andreu-Iturreta 22. Alegian izanliko norgehiagokak jubenekien artekoak izan ziren. 18ra egiten dituzte eta honela bukatu ziren partidak: Mendizabal-Etxeberria 17, Albeñdi-Pere sanz 18; Xabi-Perez 18, Galarraga-Erauskín 3, eta Barberena-Pazos 18. Ansoategi-Iturratza 8, Gaur Larderen artekoan Asubarrena Goleiren kontra, Perez Albeniz, Loidiren kontra, Taberna Mujikaren aurka eta azkenik Barberena eta Zabala arlo dira.

Barriola Gonzalezen aurka ariko da buruko finalerdian

Leitza » Igandean Patxi Ruiz erraz menderatu zuen 22-6ko emaitzarekin; honela, bi leitzar arko dira bi finalerdietan.

Senperena, GRAVN Txapelketan 22 urte azpikoetan txapeldun

ERREDAKZIOA
Herenegun GRAVN Pilota Txapelketako final batzuk jokatu zituzten eta tartean Senperena goiatzara aritu zen 22 urte azpikoetan. Oxoetorean kontra 22-12 irabazi zuen Aurrene-Saias pilotari eskolako pilotariak. Bere jokoa ona izan zen, eta erraz antzera irabazi zion aurreneburuetan.

Besalako Gestoan ostrikoloren mailan Zazpi-Iturriko Sukia eta Arzelas aritu ziren eta Zabala eta Lagrerea pilotarien kontra garaijona lortu zuten 22-47 emaitzarekin.

TOLOSALDEKO INMAKULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ERIZAINZTA LAGUNTZAILA
- FARMAZIA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- DIAGNOSI TRUDIA
- ERRADIOTERAPIA
- OSASUN DOKUMENTAZIOA
- GIZARTE INTEGRAZIOA
- HAUR HEZKUNTZA

ATE IREKIAK: Maiatzak 15 (15:30 - 18:30)
IZEN EMATEA: Maiatza - Ekaina

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel. : 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

Formulario bat emango dizugu En castellano por favor

*Oraindik badira jendaurreko zerbitzuak euskaraz ere eskaintzen ez direnak, Gizarte elebiduna lortzeko egiten dugun lan.

Zure hizuntza eskubideak zantzeko egiten dugun lan. Hain urrutia zaitzake ueste baldin baduzu, jar zaitzake harenartean gurekin, eta beharrezkoa den guztia egingo dugu arazoa konpontzeko.

etxide Elkarrizketa Elkarrizketa Berrietasun erdiak

EUSKO JAIUNARRITZA **GOBIERNO VASCO**



Erakusketa ikus daitezkeen hainbat argazki. HITZA

Ezin direnak ahaztu

Zizurkil » Maiatza Saltsanen baitan Mugarik Gabeko Medikuen 'Krisi ahaztuak. Bizitza ezikusiak' erakusketa ikusgai dago Atxulondon.

ERREDAKZIOA

Aste guzti honetan Atxulondon eta datorren astean Iriarte kultur etxean, Mugarik Gabeko Medikuen *Krisi ahaztuak. Bizitza ezikusiak* argazki erakusketa ikusgai dago Maiatza Saltsan egitarauaren baitan. Erakusketa osatu dutenek diotenez, «ahazturik dauden gaitasun eta gatazka batzuek 15 milioi lagun hiltzen dituzte urtean».

Erakusketa bi gaixotasunen

(hiesa eta chagas) eta lau herrialdetan (Somalia, Txetxenia, Kolonia eta Kongoko Errepublikako demokratikoa) bizi dituzten gatazken inguruko hausnarketak egiten dira. Argazkiak baliatzen dituzte horien berri emateko.

«Oso arreta gutxi»

Mugarik Gabeko Medikuek azaltzen dutenez, «nazioarteko komunitateak eta hedabideek oso arreta

gutxi eskaintzen diete mundu osoan dauden 30 gatazka armatueta-ko gehienei». Medikuek eta giza laguntza ematen duen GKE horrek gaineratzen duenez, «gatazka horien ondorioz 300.000 pertsona hiltzen dira urtean eta gutako askori ez zaizkigu gogoratu ere egiten heriotza horiek eragin dituzten geroak».

Atxulondon 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da irekita erakusketa. Iriarten arratsaldean ikusi ahalko da. Egunerokotasunean arreta jasotzen ez duten gatazka eta gaixotasun horien biktimgoan izateko aukera.

Itziar Aramendi, gutun lehiaketako irabazlea nagusien mailan

Alkiza » Lurdes Gorostegi zizurkildarra izan da bigarrena eta Anselmo Larrarte larrauldarrek jaso du sari berezia.

rrauldarra izan da bigarrena eta joko bana jaso dute hauek ere; C mailan, 12-16 urte artekoak, Lide Montes asteasurra izan da garaila, 100 euro jasoz, eta Maider Garin zizurkildarra bigarren, 50 euroko saria jasoz.

I. GARCIA

Iazko lanen bikoitza aurkeztu dira aurtengo Aiztondoko II. Gutun Lehiaketara. Guztira 44 lanen artean, lau mailatan sailkatuta, aukeratu behar izan du epaimahaiak. Magusien mailan, hau da, 17 urte-rik gorakoetan Itziar Aramendi donostiarra izan da irabazlea. Lurdes Gorostegi zizurkildarrak lortu du bigarren postua eta Anselmo Larrarte izan da sari berezia jasotzen. Aramendik 300 euroko saria hartu du, Gorostegik 150 eurokoa eta Larrartek landa etxe batean bi pertsonetako gau bat.

Beste hiru maileri dagokionez, ondorengoak izan dira saridunak: A mailan, 6-8 urte bitartean, Aizpea Belasko adunarra eta Iñigo Arce-lus asteasurra izan dira lehengor biak eta joko bana jaso dute; B mailan, 9-11 urte bitartekoan, Mikel Garin zizurkildarra izan da aurrena eta Sarai Kortajarena la-

Epaimahai berezia

Aurtengo lehiaketak natura izan du protagonista, bereari zuendutako gutuna idatzi behar baitzen. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea «gustura» azaldu da lehiaketak izandako erantzunarekin eta jarraipen emango diotela gaineratu dute. Alkizako sari banaketa bera «modu informalean» egin zela azpimarratu dute.

Helduen mailan Juan Kruz Ige-rabide idazle adunarra aritu da epaimahai bezala. Beste mailetarako, Mankomunitatea osatzen duten lau herri bakoitzetik hiru lagun aritu dira epaile lanetan. Mankomunitateetik bertatik azaldu dutenez, «herriarren partehartzea bultzatu nahi genuen, bai gutunak idazterakoan, baita sariak erabakitzerakoan ere». Esperientzia «oso ona» izan dela adierazi dute eta sariak «adostasunean» erabaki dituztela.



Sari banaketaren une bat, saridunak eta ikusleak batera ikusten direla. AMAIA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Jaien azken egun arrakastatsua

IZASKUN » Asteburu bizia izan dute Izaskun auzoko bizilagunek. Euren jaiak ekitaldiz beterik igaro dituzte eta atzokoa ere ez zen salbuespena izan. Alurr dantza taldearen emanaldiak osatu zuen egitarauaren ekitaldirik garrantzitsuen. Urte asko daramatza taldeak Izaskun auzoko jaien

tan dantzaten, eta arduradunek aitortu dutenez, umeek ilusio handia izaten dute bertan dantzatzeko. Guztira 135 ume inguru aritu ziren bertaratu zirenen aurrean emanaldia eskaintzen. Txalo zaparrada ugari jaso zituzten denek ere. Datorren urtean ere bertan izango dira ziurrenik... i.g.

Laskorainek garaipena lortu du etxean

Tolosa » Saikapenean bigarren den Gipuzsala Nogales taldearen aurka irabazi zuten tolosarrek Usabalen (5-4).

ERREDAKZIOA

Laskorain areto futbol taldeak etxean hartu zuen pasa den asteburuan, Gipuzsala Nogales taldea. Usabal lepo bete zen norgehiagokai ikusteko saikapenean, hurrenez hurren, hirugarren eta bigarren dauden taldeen arteko lehia. Bisitariak garaipena behar zuten igoera lortzeko. Baina, amaierako emaitza tolosarren aldekoa izan zen, 5-4ko emaitzarekin. Honenbestez, hirugarren postuari eusten diote horitxoek.

Bi taldeek lehen zatian batez ere joko traketsa erakutsi zuten, urduritasuna zela-edo. «Baloi jabetza motzak, huts egite eta etenaldi asko eta jarraipen gutxiegi jokoan» izan ziren nagusi, arduradunek jakitera eman dutenaren arabera. Joko mota hau, ordea, Laskoraingo jokalarientzat izan zen mesedegarri eta atsedenaldira 2 eta 0 iritsi ziren aurretik, Saldiasen penaltiz eta Zabalak kontraerasora sarturiko golei esker.

Haatik, bigarren zatian gauzak

aldatu egin ziren, eta bisitariak zorteak lagundurik gola sartu ondoren, estu hartu zituzten tolosarrek eta markagailuari buelta eman zioten «merezimendu osoz», 2 eta 3koa ezarritz.

Baina ikastolakoek ez zuten amore eman, eta berriro berdindu zuten neurketa Barriolaren korneerako estrategian takioez sartutako golari esker. Jarrain, Gilek 4 eta 3koa sinatu zuen jokaldi pertsonalean. Ondoren, Astigarragako taldeak laugarren gola egin zuen. Baina berdinketarekin ez zuten nahikoa; horrexegatik atezaina ere jokalarri lanetan jarri zuten eta Saldiasen bosgarrena egitea lortu zuen. Horrelaxe amaitu zelarik neurketa.

Javi delegatua, Alonso entrenatzailea eta Arribillaga, Amatriain, Telletxea, Barriola, Saldias (hasierako bostekoa), Telleria, Otxoa, Gil, Murgi, Zabala, Zubillaga eta Domentxe jokalarriak aritu ziren Usabalen.

Amiaeraren tentsio oneak

Partidaren amaieran, hain zuzen, «ikastolako poza zapuztu nahian», beste taldeko jokalarri barietateak «irabazten utzi ez izana» leporatu zieten laskoraindarrei, taldeko arduradunek salatu dutenez.

Lehen Mailari eutsiko dio Tolosa-Aralarrek

Tolosa » Denboraldia amaitzeko jardunaldi bat geratzen dela lortu dute mailari eustea Promociones Legarziari irabazita (76-72).

ERREDAKZIOA

Denboraldia amaitzeko jardunaldi bakarra falta denean lortu du Tolosa Aralarrek matematikoki Lehen Mailari eustea. Horretarako pasa den asteburuan Promociones Legarza taldearen aurkako neurketa irabazi zuten etxean, 76-72ko markagailuarekin.

Jaitsiera fase honetan balantze oso txarrarekin sartu baziren ere (3 garaipen eta bost porrot), bederatzit partidetatik 7 irabazita maila berdinean jokatuko dute datorren denboraldian ere. Pasa den denboraldian lortu zuten igoera amateurretan dagoen maila altuenera eta, beraz, aurtengo helburua mantentzea zen. Beraz, pozik egoteko arrazoiak dituzte Jimyren mutilek.

Denboraldi honetan etxean jokatuko zen azken partidarako talde osoa zuen prest Jimy entrenatzaileak. Joaneko itzulian Lizarran jokatu zen partidaren 15 puntugatik galdu eta gero (90-75), jakinaren gainean ziren etxekoak

ez zela erraza izango garaipena erdieste. Partida hasterako saikapenean pare-parean ziren bi taldeak eta kanpotarrek ere garaipenaren beharra zuten mailari eusteko.

Partida hasieran errespetu handia ikusi zen bi taldeen artean. Inork ez zuen gehiegi arriskatu nahi eta defentsan oinarritu nahi izan zuten euren jokoa. Hala, lehen laurdena tolosarrentzat izan zen (16-13).

bigarren laurdenean kanpotarrek erosoago ibili ziren eta atsedenaldira zortzi puntuko desabantailarekin iritsi ziren (28-36). Hala ere, hirugarren laurdena irabazita amaierako lehio oso estua izan zen, etxekoek alde amaitu zelarik.

Nerea Amilibiak Izarraizko Mendi Lasterketa irabazi du Azpeitian

Kirolak » Korrikalari zizurkildarrak 02:26:23ko denborarekin bete zuen 21,2 kilometroko ibilbidea.

ERREDAKZIOA

Herenegun Azpeitian izan zen Izarraizko Mendi Lasterketan Nerea Amilibia zizurkildarra helmuga gainditzen lehen emakumea izan zen. Saikapen orokorrean, berriz, 71. postua eskuratu zuen korrikalariak, 02:26:23ko denborarekin.

Mutiletan, berriz, Fernando Etxegarai beratarrek irabazi zuen lasterketa, 01:54:44 denbora eginez. Azpeitiko lehen lasterkaria Enekoitz Aizpuru izan zen, laugarren egin zuelarik (02:01:38).

Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatutako 21,2 kilometroko lasterketa. Korrikalariak goizeko 10:00etan irten ziren Azpeitiko plazatik eta 32 minuturako Xoxoten ziren lehenengo parte-hartzaileak. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, «bezeran euri asko egin zuten eta bidea arriskutsua zegoen, bustita eta».

Loatzo musika eskolan izena eman ahal izateko epeak zehaztu dituzte

ERREDAKZIOA

Loatzo musika eskolak izena emateko epeak zehaztu ditu. 10:00etatik 12:00etara egin beharko dira. Adunako Udaltaldean, Alegiko Kultur Etxean eta Irurako Kultur Gunean hilaren 12tik 14ra bitarte izango dute aukera. Villabonako Musika etxean eta Zizurkilgo Kultur Etxean, berriz, hilaren 12tik 16ra bitartean; eta Ibarra musika eskolan, 13an eta 14an. Anoeta-ko ikastolan, 15ean eta 16an.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

■ **Irura.** Kultur Astea: 17:00etan jubilatuen jokoak (bote eta toka plazan eta mahai-jokoak Zaharren biltokian); eta 17:30ean Kafe-tertua Ikastolan A. M. Urangarekin, *Nola lagundu haurrei ohitura osangarriak har ditzaten* gaiaren inguruan.

Deialdiak

■ **Tolosaldea.** Gelditour kamioia helduko da 12:30ean Triangulora, bertan manifestazioa egingo dute; 17:00etan erakusketak Zizurkilgo Joxe Arregi plazan; 19:00etan *AHT eta behar dituen harrobiak* hitzaldia plaza berean eta 20:00etan elkarretaratzea Zizurkilgo errotondan.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Tolosaldeko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzuak *Animazio soziokulturala Adineko pertsonekin: jarduera posibleak* hitzaldia antolatuko du Iturriza elkartean 17:00etatik 18:30era Tolosaldeko hirugarren adineko herritar guztiei zuzenduta antolatuko dute hitzaldia.

■ **Gaztelu.** *Alergien mundua* hitzaldia izango da herriko elkartean 17:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *Sahara no se vende* luze-metraia emango dute 19:30ean Kultur Etxean. Fisharako Zinemaldian saritu zuten. Ondoren solasaldia egilearekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro zuzoa, 9. 943 675118.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Julio Villar-en bisita Fleming eskolara

VILLABONA • Julio Villar abenturazalearen bisita izan zuten atzo Fleming eskolan. Aurretik eskolako LH5 eta LH6ko ikasleek hainbat lan egiten dituzte bidaiari honen inguruan. Esaterako, LH6koek aurkezpen bat egin zuten argazki eta musikarekin eta Villarri oparitu zien. Bestek beste, abenturazale horrek bost urtetan belauntzi baten barruan munduari bira

eman zion. Bidai hori aprobetxatuz, Villar igaro zen lekuen inguruko gauzak ezagutzeko aukera eman die ikasleei. Atzokoa izan zen egitamo guzti horri amaiera eman zien egun berezia, Villar berak bere ahotik hainbat galderi erantzun baitzien ikasleen jakinmina asetzeko. Abenturazalearen sinadura eskatu zuenik ere izan zen ikasleen artean. FLEMING ESKOLA

A Agurrak



Zorixonak!

Ugaitz Mujika Sarasola (Amezketan).
Gaur 3 urte. Zorixonak Ugaitz aitabxo, amatxo eta familia guztiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

MIRARI Parafarmazia

- * HAURREN ELIKADURA ETA HIGIENA
- * HELDUEN EDERTASUNA ETA HIGIENA
- * HAURREN ETA HELDUEN DERMOKOSMETIKA

Kale Berria, 56 • Billabona • Tel.: 943 692 351
parafarmazia.mirari@telefonica.net

argazki lehiaketa

h

HITZA argazki lehiaketa

Maiatzaren 18an
XIV Orduetako ibilaldia

Ibilbidean zehar
ateratzen dituzuen
argazkiak bidali
HITZAra eta hilaren 23ko alean
argitaratuko ditugu.

Argazki onena saritu egingo dugu!

bidali
zure argazkia!



Argazkiak tolosaldean@tolosaldeko hitza.info-ra bidali